

UDALAK 2011ko IRAILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

**BATZORDEKIDEAK:**

**ALKATEA:**

Luis Intxauspe Arozamena jn.

**ALKATEORDEAK:**

Gloria Mendinueta Yeregui and.

Asier San Emeterio Otegui jn.

**ZINEGOTZIAK:**

Miren Kistiñe Lujanbio Galdeano and.

Aitor Miner Aginaga jn.

Iker Goenaga Gubia jn.

Beñat Amenabar Perurena jn.

Nahiara Sanchiz Arregui and.

Estefanía Morcillo Cerdan and.

Andoni Amonarraiz Gómez jn.

Jose Antonio Cuesta Sole jn.

Iñaki Arratibel Olaziregi jn.

Iñaki Barrio Sagastume jn.

2011ko irailaren 27an ohiko osoko bilera egin da Hernaniko Udaletxean, arratsaldeko 19:00etan, aurrez deialdia egin zegoelarik. Bileran Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako batzordekideak eta neu, Arantxa Urain Mendiburu idazkaria.

**IDAZKARIA:**

Arantxa Urain Mendiburu and.

Bileran hasi delarik, aztergaien zerrendako gaiak aztertzeari ekin aurretik, Amonarraiz jaunak (EAJ) hitza eskatu du eta, alkate-lehendakariak eman ondoren, hau esan du:

Legegintzaldia hasi denetik ikusten ari gara gobernu talde honek oztopoak besterik ez dizkiola jartzen oposizioaren lanari.

Lehenengo gauza asistentzia-dietak kentzea izan zen, aurreztu beharra zegoela argudiatuz, baina berehala alkateari idazkari pertsonal bat jarri zioten, udalari urtean 39.718 €-ko kostua ekartzen diona, oposizio osoak kostatuko lukeena baino zertxobait gutxiago. Eta guk hemen jarraitzen dugu.

Orain, lanerako beharrezkoak ditugun dokumentuak ez dizkigute euskaraz eta gaztelaniaz ematen, jakinik ere hainbat zinegotzik ez dugula agiri teknikoak euskaraz irakurri eta ulertzeko euskara maila nahikorik. Idatziz eskatu dugu, bai erregistroaren bidez eta baita idazkariaren bidez ere, dokumentu horiek bi hizkuntzetan ematea nahi dugula, eta azken Pertsonal Batzordean (irailaren 21ean) esan ziguten guk gure lana egin ahal izateko bitartekoak jarriko zirela, baina ez da hala izan. Eman zitzaigun dokumentua, "Batzordeetako dokumentuen hizkuntza, batzorde informatzaileak nahiz erabakitzaileak" izenekoa, irailaren 23koa, horren adibide garbia da.

Gu ados gaude batzordeetan euskaraz hitz egin eta norbaitek ulertzen ez badu itzultzearekin eta osoko bilkuretan interpretaria edukitzearekin. Hori da gaur egungo zinegotzietan dagokienez daukagun

errealitatea eta, horregatik, derrigorrezkoa da gure lanerako behar ditugun agiri guztiak euskaraz eta gaztelaniaz egotea.

Hori guztia kontuan hartuta, eskatzen dugu osoko bilkura hau bertan behera gera dadila, gure lana egin ahal izateko bitartekoak jarri ez direlako eta, ondorioz, gure ustez, osoko bilkura honetarako deialdia ez delako legearekin bat etorri egin.

Gure eskaera ez bada kontuan hartzen, behartuak egongo gara osoko bilkuratik alde egitera eta, gure lana egiteko behar ditugun bitartekoak ez jartzeko jarrera honek jarraitzen duen bitartean, batzorde eta osoko bilkura guztietatik alde egingo dugu. Gainera, bide guztiak erabiliko ditugu zinegotzi garen aldetik ditugun eskubideak defendatzeko eta bozkatu gaituztenon ahotsa entzun dadin.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) hau esan du:

**UDAL TALDE SOZIALISTAK ESKATZEN DU ERRESPETA DAITEZELA OPOSIZIOKO ZINEGOTZIEN ESKUBIDEAK ETA EZ DAKIELA TRABARIK JARRI BEREN ZEREGINAK EGITEKO.**

Gobernu taldeak sortu duen egoeraren aurrean, erabaki baitu, bere aldetik, udalean ia erabat euskara soilik erabiltzea, ez bakarrik udal barruko ahozko harremanetan, baizik eta baita batzorde eta osoko bilkuretan aztertzeke eta eztabaidatzeko sortzen den dokumentazio eta txosten teknikoan idazketan ere, esan beharra daukagu euskara menderatzen ez duten zinegotzien hizkuntza eskubideen urraketa bizi dugula, eta ez bakarrik hizkuntza eskubideena, lan eskubideena ere bai.

Udal talde sozialistak behin eta berriz eskatu izan du, eta orain arte ez du lortu, zinegotzietan ematen zaien dokumentazio guztia EAEko bi hizkuntza ofizialetan idatzita egon dadila, legegintzaldi honetara arte egin izan den moduan, informazioa eskuratzeko garaian korporazio honetako kide guztiak egoera berean egon daitezela bermatu ahal izateko.

Inolako neurririk adostu gabe, gaurko osoko bilkuran euskaraz bakarrik idatzita etorri den gai zerrenda bat dugu esku artean, eta berdin gertatzen da bilerarako aztertu beharreko agiri gehienekin ere. Jarrera horrekin ezin ditugu gauzak behar bezala aztertu eta gure lana ongi egin eta, horregatik, dokumentazio guztia ele bitan idatzita ematea eskatzen dugu. Hala egiten ez den bitartean gure eskubideak urratzen ari direla ulertuko dugu eta behartuta egongo gara bilera honetatik eta behar diren bilera guztietatik alde egitera.

Argi eta garbi adierazi nahi dugu, bestalde, euskal instituzioekin harremana duen pertsona ororen hizkuntza eskubideak defendatzen ditugula, harremanetarako erabiltzen duten hizkuntza euskara nahiz gaztelania dela, eta ez horietako baten marjinoak inolako eskubide urraketarik ekar dezala, ez baita udalaren eta zinegotzien lanaren kaltetarako besterik.

Arratibel jaunak (H1!) hau esan du:

Orain arte euskara ez da arazo izan udal honetan, baina badirudi gobernu talde honekin hala izango dela. Guretzat penagarria da, baina uste dugu arazoia ez dela euskararen erabilera bera, oposizioaren lanari oztopoak jartzea baizik.

Bilduk pentsatu behar du zein jarrera hartuko duen, eta jarri beharreko bitartekoak jarri beharko ditu oposizioa bere lana egiteko moduan egon dadin. Oposizioa ez dago iritzia emateko bakarrik; gobernuaren lana fiskalizatzeko ere badago eta, horretarako bitartekoak jarri behar dira.

Gu ere, hartu den jarrera ikusita, osoko bilkuratik alde egingo dugu, protesta gisa.

Gero alkate-lehendakariak 5 minutuko atsedenditxo bat egingo dela esan du, eta bilera eten egin da.

Bilerari berriz ekin zaiolarik alkate-lehendakariak (Bildu) hau esan du:

Ez dugu onartzen Osoko bilkura bertan behera uzteko egin den eskaera. Ez gaude ados osoko bilkura euskaraz ez egiteagatik edo Udal honek euskaraz funtzionatzeko ahal duen guztia egiteagatik bilera bertan behera uztearekin.

Bertan geratzeko edo alde egiteko eskubidea duzue, zuen esku dago, baina garbi dago Bilduk, orain arte, ez duela oztoporik jarri euskaraz funtzionatzeagatik, eta behin baino gehiagotan esan dugu bi-tartekoak jarriko ditugula eta jarri ere jarri ditugu. Askotan itzuli izan dira dokumentuak, eta laburpenak egin, eta interbentzioak itzuli, eskatu izan direnean.

Osoko bilkura honetako gai zerrendako aztergai guztiak ezagunak dira. Inor ez da etorri bilerara gaiak ezagutu gabe.

Gure ustez oposizioaren jarrera salagarria da, euskara Euskal Herrian arazo bilakatzen duelako. Lotsagarria eta penagarria iruditzen zaigu EAJ-k eta H1!-ek euskara arazo bihurtzea.

Batzorde askotan legezko txostena eskatu duzue, eta prestatzen ari gara, baina bitartean euskaraz funtzionatuko dugu.

Arratibel jaunak (H1!) hau esan du:

Zuek bilakatu duzue euskara arazo udaletxe honetan. Kontua ez da osoko bilkura zein hizkuntzatan egingo den, interbentzioak itzuliko ote diren ala ez, beti bezala bat bateko itzulpena baitago. Baina beste batzuetan, esaterako batzordeetan, txostenetan, etab., euskara arazo bilakatu duzue.

Morcillo andreak (Euskal Sozialistak) esan du Osoko Bilkura bertan behera uzten ez denez beraiek esandakoa berresten dutela eta bileratik alde egingo dutela.

Hori eta gero EAJ eta H1! alderdietako zinegotziek ere alde egin dute bileratik.

Osoko bilkurak aurrera jarraitu du Bilduko 9 kideekin.

**1.- AKTAK ONARTZEA: 2011-08-30.** - 2011ko abuztuaren 30ean egindako bileraren akta onartu da.

**2.- 2011KO ABUZTUAREN 26ETIK 2011KO IRAILAREN 21ERA BITARTE HARTUTAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.** - 2011ko abuztuaren 26etik 2011ko irailaren 21era bitartean pertsona bakarreko honako organo hauek hartu dituzten ebazpenen berri eman da.

\* Alkate jn.

\* Zerbitzu Publikoetako delegatu jn.

**3.- ALKATEAREN ERABAKIEN BERRI EMATEA ONDOKO PUNTU HAUEI DAGOKIENEZ:**

**A) TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEEN IZENDAPENA ALDATZEA.**

**DEKRETUA.**- Hernanin bi mila eta hamaikako irailaren hamahiruan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, apirilaren 21eko 57/2003 Legearen bidez aldatua baitago, 21.2 eta 23.3 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

#### **ERABAKI DUT**

2011ko ekainaren 13an emandako dekretua aldatzea honela:

LEHENA.- Idurre Conde Santa Cruz Tokiko Gobernu Batzarreko kide izendatzeko erabakia baliogabetzea.

BIGARRENA.- Alderdi politiko honetako zinegotzi hauek Tokiko Gobernu batzarreko kide izendatzea, indarrean dagoen araudi lokalak ematen dizkien ahalmen eta eskubideekin.

1.- Beñat Amenabar Perurena jn. (BILDU)

2.- Kistiñe Lujanbio Galdeano and. (BILDU)

BIGARRENA.- Zinegotzi horiei ebazpen honen berri ematea, eta Udalbatzari ere bai, egiten den hurrengo Osoko Bilkuran. Erabakiaren laburpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.

HIRUGARRENA.- Ebazpen hau Alkatetzako Ebazpenen Liburuan jaso behar da, eta hartzen den egunaren biharamunetik aurrera izango du eragina.

#### **B) TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN BILERAK EGITEKO EGUNA ETA ORDUA ALDATZEA.**

**DEKRETUA.-** Hernanin bi mila eta hamaikako irailaren hamahiruan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, apirilaren 21eko 57/2003 Legearen bidez aldatua baitago, 21.2 eta 23.3 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, eta Udalaren Araudi Organikoaren 30. artikuluan ezarritakoa kontuan hartuz, honako hau

#### **ERABAKI DUT**

Udal honetako Tokiko Gobernu batzarraren ohiko bileren ordua aldatzea, eta aurrerantzean ondorengo egun eta ordu hauetan egitea: **ostiralero, 08,30 orduetan.**

#### **C) ALKATETZAREN ESKU ORDETZEAK:**

- **TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ALDE.**

**DEKRETUA.-** Hernanin bi mila eta hamaikako irailaren hogeitabatean.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, apirilaren 21eko 57/2003 Legearen bidez aldatua baitago, 21.3 artikulua ematen didan ahalmenaz baliatuz, honako hau

## ERABAKI DUT

Lehena.- Tokiko Gobernu batzarraren esku uzten ditut alkateari dagozkion eskumen hauek:

- 1.- Obra eta zerbitzuen kontratazioa, zerbitzu publikoen kudeaketa, administrazio kontratu bereziak eta kontratu pribatuak, baldin eta horien kopurua 60.101 eurotik gorakoa baldin bada eta aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino gehiagokoa ez bada eta, nolana ere, sei milioi eurotik gorakoa ez bada, hainbat urtetarakoak direnak ere sartzen direla, lau urte baino gehiagorako ez badira, baldin eta urte guztietako zenbatekoak metatuz ez bada gainditzen ez aipatutako ehunekoa, lehen ekitaldiko aurrekontuko baliabide arruntei dagokienez, ez eta aipatutako kopurua ere.
- 2.- Obra egitasmoak eta zerbitzuak onartzea, haiek kontratatzeke edo emateko eskumena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
- 3.- Udalbatzaren ondasunen gaineko emakidak eskuratzea eta ondasun higiezinak eta ondare legeriaren mende dauden eskubideak eskuratzea, haien balioa 60.101 eurotik gorakoa baldin bada eta aurrekontuko baliabide arrunten 100eko 10 baino gehiagokoa eta hiru milioi euro baino gehiagokoa ez bada, haien balioak adierazitako kopurua gainditzen ez badu eta ehuneko eta zenbateko hori gainditzen ez badu.
- 4.- Planeamendu orokorraren garapenerako planeamendu instrumentuak onartzea, ez badaude udalbatzari espresuki esleituak, bai eta hirigintza kudeaketa instrumentuak eta hirigintza egitasmoak ere.
- 5.- 60.101 eurotik gorako gastuak baimentzea eta baliatzea, bere ahalmenen barruan.
- 6.- Hirigintza lizentziak eta, oro har, obra nagusietarako lizentziak ematea, eta hirigintza kontsultei erantzutea, salbuetsiz ordenantzek edo lege sektorialek udalbatzarrari edo beste organo batzuei espresuki ematen dizkietenak.
- 7.- Aurri-aitorpenak egitea, berehala aurri aitorpenik izan ezik.
- 8.- Sailkatutako lizentziak ematea, udalbatzak tramitazioan zehar txostenak egin behar izatea gertatuz gero horiek egiteko ardura alkatetzari gordetzen zaiolarik.
- 9.- Langileak hautatzeko probetarako oinarriak onartzea, bai eta lanpostuen lehiaketetarakoak ere, eta finkoak eta aldizka-aldizkakoak ez diren ordainsariak banatzea.
- 10.- Udal administrazioeko funtzionarioei diziplina espedienteak irekitzea.
- 11.- Erantzukizun administratiboko espedienteak irekitzea erabakitzea eta epaile instruktorea izendatzea, eskumen hori beste organoren batena ez bada.
- 12.- Udal ordenantzekiko arau hausteak zigortzea, non eta ahalmen hori beste organo batzuei egotzirik ez den."
- 13.- Norgehiagoka bidezko diru-laguntzak emateko deialdiak eta oinarri arautzaileak.

- **ZERBITZU PUBLIKO ARLOAN.** -

Eretiratzen da, aurreko osoko bilkuran aztertu zelako.

- **KIROL ARLOAN.**

**DEKRETUA.**- Hernanin bi mila eta hamaikako irailaren hamahiruan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, apirilaren 21eko 57/2003 Legearen bidez aldatua baitago, 21.3 eta 23.4 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

#### **ERABAKI DUT**

- 1.- Alkatetza honi dagozkion zenbait eginkizun, ondoren aipatzen den alorrekoa, ondoko udalkide honen **ESKU UZTEA:**

\* Beñat Amenabar Perurena jn. (BILDU): - **KIROLAK.**

- 2.- Eskuordetze orokor hauetan honako zeregin hauek sartzen dira, bakoitzaren alorreko gai eta zerbitzuei dagokienez:

- Eskuordetutako alorrari dagozkion baliabide fisikoak eta giza baliabideak zuzentzea, bultzatzea eta kontrolatzea, udalaren helburuak hobeto betetzeko.
- Eskuordetutako jardueraren alorrean erabakitako lan, zerbitzu eta hornikuntzak udalaren izenean zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea.
- Alkatea ez dagoenean haren ordezkari izatea, norberaren eskuordetzearen arloan.
- Gainerako ordezkariekin bilerak egitea eta haiekin harremanetan egotea, informazioa elkartrukatzeko eta koordinaturik egoteko.
- Bere eskuordetze arloari dagozkion lege, ordenantza, erregelamendu eta udal erabakiak betearaztea.
- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurorainoko gastuak egin ahal izatea, aurrekontuan baimendutako kredituen barruan.
- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurotik beherako era guztietako kontratazio eta emakidak onartzea, aurrekontuan horretarako nahiko kontsignaziorik baldin badago.
- Obra eta zerbitzu egitasmoak onartzea, haiek kontratatzeke eta emateko ahalmena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
- Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagozkio.
- Lege, erregelamendu, ordenantza eta udal erabakiekiko arau haustek zigortzea, zeregin hori beste organoren bati ez badagokio.

- Eskuordetzearen indarrez egindako administrazio egintzen aurkako berraztertze errekurtsok ebaztea.
  - Edozein udal organori jarduketa proposamenak egitea.
- 3.- Eskuordetzea mugagabea da eta, onartua izanez gero, Ebazpen hau hartzen den egunean hasi eta, bukatu berriz, ebazpena ezesten denean, alkatearen agintaldia bukatzen denean edo uko egiteko idazkia aurkezten denean bukatuko da.
  - 4.- Alkateak eskuordetzea ezeztatu ahal izango du.
  - 5.- Alkateak edozein momentuan bereganatu ahal izango du eskuordetutako eskumena, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera bidezko jotzen duen hedaduran.
  - 6.- Kanpoan 24 orduetik gora eman behar izanez gero, asteburuak alde batera utzita, alkateari idatziz jakinarazi beharko zaio. Tarte horretan alkateak berreskuratuko ditu eskuordetutako eginkizun eta ahalmen guztiak.
  - 7.- Alkateari dagokio zinegotzi-delegatuen arteko eskumen auziak konpontzea.
  - 8.- Zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.
  - 9.-Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.
  - 10.-Zinegotzi-delegatuek administrazio egintzak Ebazpen bidez emango dituzte, eta alkateak emandakotzat joko dira.
  - 11.-Administrazio egintza bat diktatzen duen ebazpenetan espresuki jasoarazi behar da alkateak horretarako emandako eskuordetzeaz baliaturik diktatuak direla.
  - 12.-Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.
  - 13.-Udalbatzari ebazpen honen berri eman behar zaio.
  - 14.-Ebazpen hau irmoa da administrazio bidean. Honen kontra, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, nahi izanez gero, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Edo, bestela, zuzenean jar daiteke errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako sailean, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horiez gain, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtsu ere jar daiteke.

#### **- HEZKUNTZA ETA ENPLEGU ARLOAN.**

**DEKRETUA.-** Hernanin bi mila eta hamaikako irailaren hamahiruan.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, apirilaren 21eko 57/2003 Legearen bidez aldatua baitago, 21.3 eta 23.4 artikuluen bidez ematen dizkidan ahalmenez baliatuz, honako hau

## ERABAKI DUT

1.- Alkatetza honi dagozkion zenbait eginkizun, ondoren aipatzen den alorrekoa, ondoko udalkide honen **ESKU UZTEA**:

\* Kistiñe Lujambio Galdeano jn. (BILDU): - **HEZKUNTZA ETA ENPLEGUAO**.

2.- Eskuordetze orokor hauetan honako zeregin hauek sartzen dira, bakoitzaren alorreko gai eta zerbitzuei dagokienez:

- Eskuordetutako alorrari dagozkion baliabide fisikoak eta giza baliabideak zuzentzea, bultzatzea eta kontrolatzea, udalaren helburuak hobeto betetzeko.
- Eskuordetutako jardueraren alorrean erabakitako lan, zerbitzu eta hornikuntzak udalaren izenean zuzentzea, bultzatzea eta ikuskatzea.
- Alkatea ez dagoenean haren ordezkari izatea, norberaren eskuordetzearen arloan.
- Gainerako ordezkariekin bilerak egitea eta haiekin harremanetan egotea, informazioa elkartrukatzeko eta koordinaturik egoteko.
- Bere eskuordetze arloari dagozkion lege, ordenantza, erregelamendu eta udal erabakiak betearaztea.
- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurorainoko gastuak egin ahal izatea, aurrekontuan baimendutako kredituen barruan.
- Bere eskumeneko arloan 24.040 eurotik beherako era guztietako kontratazio eta emakidak onartzea, aurrekontuan horretarako nahiko kontsignaziorik baldin badago.
- Obra eta zerbitzu egitasmoak onartzea, haiek kontratatzeko eta emateko ahalmena badu eta aurrekontuan aurreikusita badaude.
- Bere eskuordetzearen arloan beharrezkoak diren ebazpenezko nahiz izapidezko administrazio egintzak diktatzea, beste organoren bati ez badagozkio.
- Lege, erregelamendu, ordenantza eta udal erabakiekiko arau haustea zigortzea, zeregin hori beste organoren bati ez badagokio.
- Eskuordetzearen indarrez egindako administrazio egintzen aurkako berraztertze errekursoak ebaztea.
- Edozein udal organori jarduketa proposamenak egitea.

3.- Eskuordetzea mugagabea da eta, onartua izanez gero, Ebazpen hau hartzen den egunean hasi eta, bukatu berriz, ebazpena ezesten denean, alkatearen agintaldia bukatzen denean edo uko egiteko idazkia aurkezten denean bukatuko da.

4.- Alkateak eskuordetzea ezeztatu ahal izango du.



- 5.- Alkateak edozein momentuan bereganatu ahal izango du eskuordetutako eskumena, administrazio prozedura erkideari buruz indarrean dagoen legeriaren arabera bidezko jotzen duen hedaduran.
- 6.- Kanpoan 24 ordutik gora eman behar izanez gero, asteburuak alde batera utzita, alkateari idatziz jakinarazi beharko zaio. Tarte horretan alkateak berreskuratuko ditu eskuordetutako eginkizun eta ahalmen guztiak.
- 7.- Alkateari dagokio zinegotzi-delegatuen arteko eskumen auziak konpontzea.
- 8.- Zinegotzi-delegatuen egitekoa izango da alkateari eskuordetuta daukaten eskumenaren kudeaketaren inguruko eta eskuordetzearen indarrez emandako egintza edo xedapenen inguruko informazio zehatza ematea.
- 9.-Zinegotzi-delegatuek garrantzi bereziko erabakiak hartu aurretik alkateari horien berri eman behar diote.
- 10.-Zinegotzi-delegatuek administrazio egintzak Ebazpen bidez emango dituzte, eta alkateak emandakotzat joko dira.
- 11.-Administrazio egintza bat diktatzen duen ebazpenetan espresuki jasoarazi behar da alkateak horretarako emandako eskuordetzeaz baliaturik diktatuak direla.
- 12.-Ebazpen hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu behar da.
- 13.-Udalbatzari ebazpen honen berri eman behar zaio.
- 14.-Ebazpen hau irmoa da administrazio bidean. Honen kontra, Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri aurretik, berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da, nahi izanez gero, hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Edo, bestela, zuzenean jar daiteke errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko administrazioarekiko auzitarako sailean, bi hilabeteko epean, jakinarazten den egunaren biharamunetik kontatzen hasita. Horiez gain, bidezkotzat jotzen den beste edozein errekurtso ere jar daiteke.

**4.- OSOKO BILKURAK UDALAREN ETA SAN MARKO MANKOMUNITATEAREN ARTEKO FUNTZIO BANAKETARI BURUZ HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOARI DAGOKIONEZ ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZITARAKO EPAITEGIAN BIDERATU DEN 836/2010 PROZEDURAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA.** Osoko Bilkurak Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako 3 zenbakiko Epaitegiak emandako dekretuaren berri izan du (836/2010), hiri hondakinen bilketarekin, tratamenduarekin eta aprobetxamenduarekin lotutako zereginak Hernaniko Udalaren eta San Markoseko Mankomunitatearen artean banatzeari buruz osoko bilkurak hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsoa dela eta emandakoa. Hona hemen:

« PARTE DISPOSITIVA

1.- Se declara terminado por desistimiento el presente recurso interpuesto por el Procurador Sr. Tamés en representación de AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA – SAN SEBASTIAN contra la actuación administrativa referenciada.»

**5.- SAN MARKO MANKOMUNITATEAREN ETA HERNANI ETA OIARTZUNGO UDALAREN ARTEKO LANKIDETZA HITZARMENAK ONARTZE ALDERA SAN MARKO MANKOMUNITATEAK HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOARI DAGOKIONEZ ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZITARAKO EPAITEGIAN BIDERATU**

**DEN 757/2010 PROZEDURAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA.** - Osoko Bilkurak Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako 2 zenbakiko Epaitegiak emandako autoaren berri izan du (757/2010), San Markoseko Mankomunitatearen Batzarrak gaikako bilketa bultzatzeko estrategia indartze aldera Hernaniko eta Oiartzungo Udalekiko Lankidetzak Hitzarmenak onartzeko hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa dela eta emandakoa. Hona hemen:

« PARTE DISPOSITIVA

SE ACUERDA EL ARCHIVO PROVISIONAL del presente recurso contencioso-administrativo promovido por el Procurador Sr/a TAMES ALONSO, en nombre y representación de MIGUEL ANGEL DIEZ BUSTO, frente a MANCOMUNIDAD DE SAN MARCOS, hasta que cualquiera de las partes solicite su reanudación o se produzca la caducidad de la instancia. »

**6.- UDALAK HONDAKINEN GAIKAKO BILKETARAKO ESKEGILEKUEK HORNIKUNTZA KONTRATATZEKO HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKAKO ERREKURTSOARI DAGOKIONEZ ADMINISTrazioAREKIKO AUZITARAKO EPAITEGIAN BIDERATU DEN 537/2010 PROZEDURAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA.** Osoko bilkurak Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako 2 zenbakiko Epaitegiak emandako autoaren berri izan du (256/2011) Udalak hondakinen gaikako bilketarako eskegilekuek hornikuntza kontratatze aldera 2010-01-27an hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsioa dela eta emandakoa. Hona hemen:

“ XEDAPENAK

- 1.- Aipatutako administrazio-jardunaren aurka AYUNTAMIENTO DE ASTIGARRAGA – ASTIGARRAGAKO UDALA(e)k abiarazitako prozedura amaitutzat jotzen da, alderdi errekurtsogileak atzera egin duelako.
- 2.- Kostuak ez ditu alderdi errekurtsogileak ordainduko”.

**7.- HIRI HONDAKINEN BILKETA ETA TRATAMENDUARI BURUZKO UDAL ORDENANTZAREN APLIKAZIOARI BURUZ 2010EKO EKAINAREN 17AN EMANDAKO DEKRETUAREN AURKAKO ERREKURTSOARI DAGOKIONEZ EMANDAKO EPAIAREN BERRI EMATEA.** Osoko bilkurak Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako 1 zenbakiko Epaitegiak emandako autoaren berri izan du (895/2011). Hona hemen:

« FALLO

DESESTIMANDO el recurso contencioso-administrativo interpuesto por la procuradora Maria Luisa Linares en nombre y representación de EROSKI SOCIEDAD COOP. frente a Decreto de 17 de junio de 2010 del Ayuntamiento de Hernani que acuerda que en el plazo de cinco días a partir de la fecha de recepción del escrito, los responsables de los dos establecimientos charter de la calle Elcano y el Consumer de Agustindarren Plaza acudan a la oficina del PAP y pidan cuantos contenedores de residuos necesiten. Que en el plazo de diez días comiencen a entregar al Ayuntamiento todas las fracciones de los residuos generadas en ambos establecimientos. Que tal y como se concreta en la Ordenanza Municipal cada fracción sea depositada el día y hora establecidos en el mismo. En caso de incumplimiento el Ayuntamiento podrá proceder a la apertura de un expediente sancionador y a sancionar por incumplimiento de la ley 10/1998 de Residuos y la Ordenanza Municipal de Residuos, debo declarar y declaro :

- 1.- La conformidad a derecho del acto impugnado.
- 2.- No se hace expresa imposición de costas a ninguna de las partes. »

**8.- UDALAK HONDAKINEN BILKETA ETA TRATAMENDUAREN ZERBITZU PUBLIKO ETA JARDUERA EKONOMIKOAREN KUDEAKETA ZUZENA MERKATARITZA SOZIETATE BATEN BIDEZ EGITEARI BURUZKO MEMORIA BEHIN BETIKO ONARTZEKO HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA JARRITAKO ERREKURTSOARI DAGOKIONEZ ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZITARAKO EPAITEGIAN BIDERATU DEN 797/2010 PROZEDURAREN EBAZPENAREN BERRI EMATEA.** Osoko bilkurak Administrazioarekiko Auzitarako Donostiako 3 zenbakiko Epaitegiak emandako dekretuaren berri izan du (797/2011), Udalak hondakinen bilketa eta tratamenduaren zerbitzu publiko eta jarduera ekonomikoaren kudeaketa zuzena merkataritza sozietate baten bidez egiteari buruzko memoria behin betiko onartzeko 2010-05-04an hartutako erabakiaren aurka jarritako errekurtsoa dela eta emandakoa. Hona hemen:

“XEDAPENAK

Aipatutako administrazio-jardueraren aurka SANTIAGO TAMES ALONSO prokuradoreak AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA(r)en izenean eta ordezkari(e)k jarritako errekurtsoa amaitutzat jotzen da, alderdi errekurtsogileak atzera egin duelako. Kosturik gabe”.

**9.- HERNANIKO UDALAK HONDAKINEN GAIKAKO BILKETARAKO ESKEGILEKUEN HORNIKUNTZA KONTRATATZEKO 2010-01-27AN HARTUTAKO ERABAKIAREN AURKA ASTIGARRAGAKO UDALAK JARRITAKO ERREKURTSOA ZUHURTZIAZ INDARGABETZEARI DAGOKIONEZ EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO JUSTIZIA AUZITEGIAK EMANDAKO EPAIAREN BERRI EMATEA.** - Osoko bilkurak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak emandako epaiaren berri izan du (537/2010)

FALLO

“Que debemos estimar y estimamos el recurso interpuesto por el AYUNTAMIENTO DE HERNANI, contra el Auto dictado con fecha 17 de mayo de 2010, por el Juzgado de lo Contencioso Administrativo nº 2 de Donostia San Sebastián, en la pieza de suspensión cautelar del recurso interpuesto por el Ayuntamiento de Astigarraga contra el acuerdo del Ayuntamiento de Hernani de 27 de enero de 2010 de contratación del suministro de colgadores para la recogida selectiva residuos, revocando la resolución apelada; sin imposición de costas”.

**10.- TXANTXILLAKO ETXEBIZITZA HITZARTUEN ESLEIPENDUN BAT ORDEZKATZEKO PROPOSAMENA.** - UTE Txantxillak aditzera eman du Txantxillako etxebizitza hitzartuen (LH-5.1 area), jatorrizko esleipenean esleipendun gertatutako pertsona batek esleipenari uko egin diola eta etxebizitza horren esleipen berria egiteko proposamena ere egin du.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2011eko irailaren 19an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Txantxillako etxebizitza hitzartuen esleipendun gertatu zen Zigor Izaguirre Otaeguik esleipenari uko egin izana onartzea.
- 2.- Etxebizitza horren esleipenduna den Imanol Gorrotxategui Rodriguez onartzea.

**11.- LH-18.4 (GUREOLA) EREMUKO URBANIZAZIOA JASO ETA ABALA ITZULTZEA.** - Aztertu da Celulosas de Hernani S.A. enpresak egindako eskaera.

Aztertu dira udal aparejadoreak eta udal arkitektoak egindako txostenak.

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2011eko irailaren 7an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- LH-18.4 (Gureola) eremuan egindako lanak hartzea.
- 2.- Urbanizatzeko lan horiek bermatzeko aurkeztutako 16.500 euroko abala itzultzea.
- 3.- Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunari edo haren legezko ordezkari akordio hau formalizatzeko beharrezko diren dokumentu publiko nahiz pribatu guztiak sinatzeko ahalmena ematea.

**12.- LANKIDETZA-HITZARMENAREN ALDAKETA, HERNANIKO UDALAREN ETA "ALOKABIDE, S.A." ALOKAIKURUKO SOZIALATE OPERADOREAREN ARTEKOA, UDALAREN JABETZAKOAK DIREN ALOKAIKURUKO ETXEBIZITZAK KUDEATZEKO.** - 2010eko abenduaren 21ean egindako osoko bilkuran Alokabide SA sozietate publikoarekin hitzarmen bat sinatzea erabaki zen. Hitzarmen horren bidez entitate horrek udalak alokairuan esleituko dituen udal etxebizitzaren administrazioan, kudeaketan eta kontserbazioan laguntzeko konpromisoa hartu zuen.

Duela gutxi Alokabide SA entitate publikoak proposamen berria egin du Hernaniko Udalaren hiru etxebizitzaren alokairua kudeatzeko hitzarmenari dagokionez, hainbat baldintza aldatuta (Elizatxo 16, Elcano 17 eta Victor Hugo 3).

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2011eko irailaren 7an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

- 1.- Hernaniko Udalaren eta "ALOKABIDE SA" alokairu operatzailearen arteko lankidetzaren hitzarmenaren proposamen berria onartzea. Gaia: Hernaniko Udalak Elizatxoko 16an, Elkanoko 17an eta Victor Hugoko 3an dituen hiru etxebizitzaren alokairuaren kudeaketa.
- 2.- Luis Intxauspe Arozamena alkate jaunari edo haren legezko ordezkari hitzarmen hori formalizatzeko beharrezko diren dokumentu publiko nahiz pribatu guztiak sinatzeko ahalmena ematea.

**13.- HERNANIKO 10. SEKTOREAREN (GALARRETA) P.1.1. ETA P.1.2. LURSAILEI BURUZKO XEHETASUN AZTERKETAREN BEHIN BETIKO ONARPENA.** - 2011ko apirilaren 11n onartu zen behin betiko Hernaniko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina. Dokumentu horrek, hau jaso zuen zehaztapenen artean: Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen elementuen aldaketa 10. eremuan (Galarreta) eta 23.5 arearen zati batean (Sorgintxulo).

Egin beharreko legezko izapidetzea egin ondoren, Udaltzarak 2010eko urriaren 20an egindako osoko bilkuran 10.5 Sektoreren (Galarreta) Zatik Planaren onartu zuen behin betiko, eta 2011ko maiatzaren 19an egindakoan, bestalde, Donostiako Parte Teknologikoa SA-k eta Orona SCoop-ek horri dagokionez sustatutako aldaketa egitasmoa ere bai, hura ere behin betiko.

2011ko uztailaren 7an Orona SCoop/Fundación Orona-Orona Fundazioak 10.5 Sektoreren (Galarreta) 1 zonaldeko P.1.1 eta P.1.2 lursailei buruzko Xehetasun Azterketa aurkeztu zuen, izapidetzeko.

Ohiko egunkarietan eta GAOan argitaratu beharrekoak argitaratu dira (GAO: 2011-8-8 Noticias de Gipuzkoa: 2011-8-9, Gara: 2011-8-6, Diario Vasco: 2011-8-6, Berria: 2011-8-5 eta Kronika 2011-8-5)

eta erabakia jakinarazi zaio Donostiako Parke Teknologikoa entitateari. Jendaurreko informazio epean inork ez du alegaziorik aurkeztu.

Gai honen inguruan egindako txosten teknikoak eta juridikoak aztertuta eta kontuan hartuta Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko Legearen 98. artikulua eta Toki Araubidearen Oinarriari buruzko Legearen 22.2.c) eta 47.1 artikuluek diotena (ekainaren 30eko 2/2006 Legea eta apirilaren 2ko 7/1985 Legea, hurrenez hurren)

Aztertu da Hirigintza eta Ingurumen batzordeak 2011eko irailaren 7an emandako irizpena.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

**Lehen.-** Behin betiko onarpena ematea Hernaniko 10. Sektorearen (Galarreta) P.1.1 eta P.1.2 lursailei buruzko Xehetasun Azterketari, LKS Ingenieria SCoopek 2011ko uztailen egin eta Orona SCoop./Fundación Orona-Orona Fundazioak sustaturikoa.

**Bigarren.-** Foru Aldundiko gordailuan jaso ondoren, behin betiko onarpen erabaki hau eta dokumentuaren hirigintza arauen eduki artikulatua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

**14.- HIRIGINTZA ETA INGURUMEN SAILEKO ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARI LANPOSTUAREN FUNTZIOAK ETA UDAL HITZARMENEO 23. MAILA EZARTZEA ONESTEA.** – Ikusita 2011ko irailaren 1eko Alkatearen ondorengo ebazpena:

**DEKRETUA:** Hernanin, bi mila eta hamaikako irailaren batean.

Hirigintza eta Ingurumen saileko antolakuntza aztertuta, beharrezkoa ikusi dugu Zuzendari bat jartzea, sailaren koordinazioa, kontrola eta eraginkortasuna bermatzeko

2011ko uztailaren 1ean Pertsonal Saileko teknikariak gaiaren inguruko txostena egin du.

Horiek horrela, eman zaizkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

#### **E B A T Z I D U T:**

**BAT.-** Udal Administrazio Orokorreko Teknikari lanpostuaren funtzioak onestea. Lanpostua Hirigintza eta Ingurumen Departamentuari atxikita dago eta Arantza Arrazola Iturbe andreak betetzen du. Funtzio nagusia zera da: Hirigintza eta Ingurumen sailaren zuzendaritza eta aholkularitza tekniko eta juridikoa. Hona hemen funtzioak zerrendatuta:

#### **ADMINISTRAZIO OROKORREKO TEKNIKARIA**

**Lanpostuaren egin beharrezkoa:** Hirigintza sailaren ardura eta sailaren barruan aditu moduan laguntza eskaintzea.

**Mendekotasun hierarkikoa:** Alkatetza.

Hierarkikoki bere mende daude ondorengo lanpostuak:

- Arkitektoa.
- Obretako Aparejadorea.
- Ingurumen Teknikaria.
- Administrariak.

## **Eginkizunak eta lanak:**

**ZEREGIN NAGUSIAK** arloko buruzagitzari dagozkionak izango dira:

### **Arloaren kudeaketa:**

- Hirigintza eta Ingurumen Saila zuzentzea, antolatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea, departamentuko zereginak bere ardurapeko arloen (hirigintza eta ingurumena) edota langileen artean banatzea eta ekintza horien jarraipena egitea.
- Arloaren aurrekontu aurreikuspenen proposamena eta ekintza eta inbertsio programen zirriborroa egitea, beharren eta ezarritako helburuen arabera, eta onartutako aurrekontua gauzatzea, aurrekontuaren aldizkako kontrola eta jarraipena eginez.
- Arloko programa eta ekimenen (zerbitzu berriak, etab.) diseinua eta plangintza egitea, eta haiek antolatzea, martxan jartzea eta kudeatzea, ezarritako erabaki eta irizpideen arabera.
- Bere ardurapeko langileei behar duten laguntza teknikoa ematea, haien prestakuntza eta garapena bultzatuz, antolaketa eskatzen duenaren arabera.
- Arloko giza alderdiez eta harremanez arduratzea, konpondu beharrekoak konponduz edota bideratuz, eta giro atsegina, ordena eta diziplina bultzatuz.
- Udal arlo bakoitzetik egitasmoak prestatzeko eta burutzeko datozen eskaerak jasotzea, bulego teknikoaren jarduna programatzea eta egitasmoaren ingurukoak ebaztea, teknikari arduradun bat izendatuz.
- Bere arloari dagozkion obren kontratazio espedienteak eta egitasmoak zuzentzea, bultzatzea eta gainbegiratzea, eta aurkeztutako pliken txostenak egitea.
- Bere eskumen-eremuari dagozkion administrazio espedienteak zuzentzea, bultzatzea eta gainbegiratzea (planeamendua, kudeaketa, hirigintza diziplina, jarduerak edo zerbitzuak), eta egin beharreko izapide guztiak betetzeaz eta egin beharreko txosten guztiak egiteaz arduratzea.
- Espedienteen jarraipenerako udal osorako ezarrita dauden irizpideei jarraituz, jardute arauak eta jarraibideak proposatzea, bere ardurapekoak diren espedienteen jarraipena egiteko eta indarrean dagoen araudia betetzen dela zaintze aldera.
- Arloak eman beharreko zerbitzuen erantzukizuna bere gain hartzea, eta dauden beharren eta ezarritako helburuen arabera haien antolakuntza eta arautzea proposatzea.
- Bere zereginak egiteko beste erakunde, entitate eta profesionalekin izan beharreko harremanak izatea.
- Arloko dokumentazio-sistema fisiko nahiz informatikoaren ardurua bere gain hartzea, sistema hori antolatzeko irizpideak, arauak eta jarraibideak definitzea eta hura eguneratua edukitzea.
- Arloko artxiboetan jasota dauden espediente eta agiriak zaintzea eta haien publikitateari buruzko erabakiak hartzea.
- Arloan dauden beharren arabera, tresneria eta bitartekoen erosketa eta langileen kontratazioa proposatzea, horretarako behar den informazioa emanez.

### **Aholkularitza teknikoa eta lege-aholkularitza:**

- Udalbatzari eta Tokiko Gobernu Batzarrari aholkuak ematea, eta beste udal teknikari batzuekiko elkarlanean hirigintza plangintza, kudeaketa eta diziplina bultzatzea.
- Hirigintza Batzorde informatzailerari eta hirigintzako beste udal entitateetara joatea eta aztergaiak prestatzea, bere jardute-eremuko gaiak aztertzeko, kontsultatzeko edo gai horiei buruzko txostenak egiteko.
- Udalburuarekin eta udalkideekin batera haiek beste agintariekin dituzten hitzorduetara edo bileretara joatea, hala eskatuz gero.
- Txosten juridikoak egitea, planeamenduari eta partikularrek sustatutako kudeaketa dokumentuei buruzkoak, bere gaitasun profesionalaren arloko hirigintza lizentziei buruzkoak, sustapen pribatuko eta udal sustapeneko proiektuen exekuzioari buruzkoak, hirigintza kontsultei

buruzkoak, etab. Eta kudeaketa, hirigintza diziplina, aurri egoera eta betearazteko agindu espedientei buruzkoak.

- Bere erantzukizun arloari dagozkion baldintza agiriak, ordenantzak eta erregelamenduak egitea, eta horrelakoei dagokionez bidezko jotzen dituen aldaketak aztertzea eta proposatzea.
- Udal teknikariei aholkuak eta informazioa ematea, udal obrak egiterakoan sortzen diren gai juridikoen inguruan.
- Hirigintza arrazoiengatik bideratutako eskuratze eta besterentze espedientei buruzko txostenak egitea, udalaren lurzoru ondarearen kudeaketari buruzko informazioa ematea, eta jabetza Erregistroan inskribatzeko egin beharreko atze-aurre guztiak egitea.

#### • **OROKORRAK**

- Herritarrak atenditzea eta informazioa eta argibideak ematea, bere arloari dagozkion gaiak buruz.
- Lankideei aholkularitza eta laguntza ematea, bere ezagupen edota esperientzia dela eta gaia hobeto menperatzen duen zereginetan.
- Aipaturikoez gain, bere gaitasun profesionalaren barruan eta ezarritako helburuak lortu ahal izateko agintzen zaizkion eta legez dagozkion eginkizunak egitea.

Bestetik teknikari horrek egin beharreko **ZEREGIN ESPEZIFIKOAK** egongo lirateke, arloan ikusten diren gabeziak kontuan hartuta:

- Hirigintza eta ingurumen arloko egoeraren diagnostikoa egitea.
- Departamentua antolatzea. Lana zuzentzea eta banatzea. Departamentuko lana koordinatzea eta beste udal departamentuekiko harremana bideratzea (ekonomia, kontratazioa eta ondarea, zerbitzu publikoak, etab.) Espedienteen jarraipenerako programaren erabilera orokorra ezartzea.
- Departamentuaren artxibo fisikoa antolatzea.
- Espedienteak eta gaur egun osorik nahiz zatiren batean egiten ez diren administrazio izapideak aztertzea eta haien tramitazio eta kudeaketa osoa ezartzea (hirigintza diziplina, espedienteen kudeaketa eta jarraipena, etab.). Iraungi gabe dauden espedienteak tramitatzea eta unean unekoak eguneratuak edukitzea.
- Ondare ondasunen inbentarioa eguneratzea, hirigintza ekintzen ondoriozko ondare ondasunei dagokienez, eta inbentario horren kontrola eta jarraipena egitea.

BI.- Hirigintza eta Ingurumen saileko administrazio orokorreko teknikari lanpostuari Udal Hitzarmeneko 23. maila ezartzea. Eragin-data: 2011ko irailaren 1etik aurrera. Aldaketa hau Udal Osoko Bilkurak onetsi behar du, funtzionarioen plantillan eta Lanpostuen Zerrendan egin beharreko egokitzapenak egin ahal izateko.

Horiek horrela, hau erabaki da aho batez:

1.- Aipatutako ebazpena berrestea.

2.- Funtzionarioen 2011ko plantilla organikoa eta lanpostuen zerrenda aldatzea, honela:

A.- Plantilla organikoan: "AOT" lanpostuetako baten izena bereiztea, "Hirigintza eta Ingurumeneko AOT" gisa izendatuz, eta "jabetzan" egoerara pasatzea.

B.- Lanpostuen zerrendan: Hirigintza eta Ingurumen arloko AOT lanpostuaren izena bereiztea eta ordainsariei buruzko zehaztapenak aldatzea, Udalean indarrean dagoen lan hitzarmenaren 23. mailarekin egokitzeko helburuz.

- 3.- Plantilla organikoaren eta lanpostuen zerrendaren aldaketak jendaurrean ikusgai jartzea, hamabost egun baliagarri, eta epe horretan erreklamaziorik egiten ez bada, behin betiko onarturik geratuko direla ohartaraztea.

**15.- ATEZ ATEKO HONDAKIN BILKETARI BURUZKO KONTU-IKUSKARITZA KONTRATATZEKO PROPOSAMENA, EAJ ALDERDIAK AURKEZTUA.** EAJ-PNV alderdiak honako eskaera hau egin du:

“Atez atekoa martxan jarri zenez geroztik mota guztietako datuak ezkutatu zaizkigu eta hainbat eta hainbat kontratu esleitu dira, batik bat hornikuntzakoak, obrakoak, langileenak, espazio publiko eta pribatuaren okupaziokoak, eta abar, eta horietako erabakiren bat legez kanpo hartua dago. Guk hori berresten duten hainbat txosten aurkeztu genuen.

Gure ustez udalaren obligazioa eta ardura dira legez kontrako gauzarik edo irregulartasunik egin ote den jakitea. Hori dela eta Andoni Amonarraiz Gómezek, EAJ-PNV udal taldearen izenean eta haren ordezkari gisa, Arautegi Organikoaren 17. artikulua 8. atalean oinarrituz, hau

ESKATZEN DU: 2011ko iraileko Osoko Bilkurako gai zerrendan honako gai hau sar dadila:

- Legezkotasuneko kanpo-ikuskaritza bat kontratatzea, datu hauek ezagutzeko:
  - \* Atez atekoa martxan jartzeak izan duen benetako kostua.
  - \* Atez atekoak gaur egun duen benetako kostua, alde batera utzita aurrekontuen dokumentuan ezarritakoa. (Herri-lanetako pabiloiko langileek edo Garbitania ez den beste enpresa batekoek egiten dituzten lanak).
  - \* Arrigoain parkean martxan jarri den garbigunearen legezkotasuna eta, legezkoa ez bada, udalak erantzukizun guztiak argi ditzala.
  - \* Atez atekoarekin lotutako esleipen batzuen legezkotasunik ezaren txostenak kontuan hartuta, dagokion epaitegiari ekintza horien berri ematea, delitu ote diren ikusteko eta, delitu izanez gero, gaiarekin lotutako erantzukizunak argitzeko.

Hau erabaki da aho batez: EAJ-PNVk eskatutako ikuskaritza ez kontratatzea.

Alkateak, Bilduko bozeramalea den aldetik, hau esan du:

Kontrako botoa eman dugu gu Udalean ez ginelako egindako lan batzuen ikuskaritza eskatzen delako, ez baita gure egitekoa aurreko legegintzaldian egindakoa eta hartutako erabakiak fiskalizatzea.

**ONDOKO PUTU HAU GAI ZERRENDAN SARTZEKO AHO BATEZ HARTUTAKO ERABAKIA.**

- EUSKARAREN ERABILERA EUSKAL INSTITUZIOETAN



Hernaniko Bildu koalizioko kideok Udalean lanean hasi eta berehala hainbat tramitazio eta ekintza egin behar izan ditugu Ertzaintzarekin:

- San Joan egitarauaren hainbat ekintzen inguruko azalpenak telefonoz
- Rosario Roman De La Fuenteren erailketaren inguruko tramite presentzialak zein telefono bidezkoak

Guztira 4 elkarrizketa izan ditugu, 2 aurrez aurrekoak eta 2 telefono bidezkoak

Harreman guzti hauetan gure lehen hitza euskaraz izan da baina lauetan eskatu zaigu hizkuntza aldatu eta gaztelaniaz hitz egiteko. Guk euskaraz egin nahi genuela adierazi dugu baina ezinezkoa izan da kasu guztietan. Batzuetan beste inor ez zegoelako euskara zekienik, eta beste kasuren batean elkarrizketaren gaiaren arduradunak ez zekielako euskaraz.

Hernanin gaude. Hernaniko Ertzaintzaren komisaldegiaekin izan dira elkarrizketa hauek. Hernani Euskal Herrian dago, eta Euskal Herrian euskara gure hizkuntza da. Nahiz eta administrazio desberdinetan egoera juridikoa ezberdina izan (salagarria hau ere); EAEn euskara hizkuntza ofiziala da. Beraz, administrazio publikoak euskararen erabilera ziurtatu behar du. Ertzaintza administrazio publikoko erakundea izanik, herritarrei harremana euskaraz bideratzeko aukera ziurtatu behar die.

Non daude euskaldunon hizkuntza eskubideak? Non dago herritarron euskaraz bizitzeko eskubidea?

Erakunde publikoari dagokigu herritarren hizkuntza eskubideak egikaritzea, ziurtatzea. Horregatik, aho batez eskatzen dugu:

- 1.- Euskaldunon hizkuntza eskubideak errespe-tatzea
- 2.- Beste edozein administrazio publikoko era-kundeei hizkuntza eskubideak errealak izan daitezen bitartekoak prestatzea eta egin beharreko moldaketak eta egokitzapenak egitea.
- 3.- Beste edozein administrazio publikoko erakun-deei hizkuntza eskubideen aurkako eraso oro salatzea.

**16.- ESKAERAK ETA GALDERAK.**– Ez dira egin.

Horren ondotik bilera eten egin da, herritar batek hitz egin zezan. 19:30 orduetan alkate lehendakariak bilera bukatutzat jo du eta nik, idazkaria naizenez fede eman dut.